



gasteluz

gasteizko euskaldunon aldizkaria



FRANKEO ITUNDUA 48 / 27

MARTXOAK 8

**zeuk ere baduzu
zer emanik!**

2

IRITIZ BLAI

- gasteizko emakumeen asanblada
- karlos fdz. de betoño

3

BERTSOAK

- askoa urzelai, euskara erasotua

4

HITZ ETA PITZ ETA SI BEMOLEAN

5

KALEA MINTZO

Telefonica versus Euskaltel

6

EUSKARA

Kale izendegia gizarteratzeko ekimena
Agur Herrikoari

12

GIZARTEA

Arabar ekonomiari errepasoa

13

KULTURA

Triki bertsoaren lehen saioa

22

KIROLAK

Gasteiz Hockey taldea

24

MUSIKA

Obligaciones

23

HAURRAK

Ametsetako neska/mutila

30

KOMIKIA



Askia Urzelai

LEHENENGO BERTSOAK



berren akotua

Badakigu euskara edonon
erasotua izan dela
eta euskaldunok ezin gara
geratu inolaz honela
aurrera jarraitu behar dugu
borrokan beti bezela
gurea dugun gauza bakarra
galduko dugu bestela.

Arabako egoera kaxkarra
hartuko dut adibide
hainbeste politikari dago
oztopatzen mila bide
beraz guztiok elkar gaitezen
bagara hamaika kide
euskarak ez du etorkizunik
gure laguntzarik gabe.

ZUZENDARIA:

ESTITXU BREÑAS GLEZ. DE ZARATE

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL,
LOREA ZURIMENDI, RAUL SAEZ DE BURUAGA, TXABI
ARNAL-GIL.

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO ETA ASIER PZ. DE KARKAMO

KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

IÑIGO SARASOLA

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIA:

EDORTA SANZ.

KOLABORATZAILEAK:

TXIPI ORMAETXEA, JUAN JOSE KASTRESANA, ASIER
IRIONDO, IMANOL BARRUTIA, FERNANDO GARCIA DE
CORTAZAR, IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, ONATI)




15


elkarrizketa

KINGA KOZURNO

"Nire ametsa: Polonian eta Euskal
Herrian batera izatea"



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunon aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Telefonica Euskaltel



alberto diaz
LANGA BEA

1.- Telefonikak monopolioa galtzea interesgarria iruditzen zait. Gero eta konpetentzia gehiago izan, orduan eta prezio merkeagoak.

2.- Bai. Oraindik ez naiz, baina bihurtuko naiz. Batetik hemengoa delako eta bestetik Telefonicarekin apurtzeagatik.



rikardo glez. de durana
JUGLAREA

1.- Berdin dit. Mafioso hutsak dira. Paso egiten dut.

2.- Bai, zera! Erdaldun horiei... bat ere ez!.

Azken boladan euskal kontsumitzailearentzat aukera berriak agertu dira telekomunikazioaren alorrean.

Espainiako Telefonica konpainiak dagoeneko monopolioa galdu du eta operadore telefoniko berriak azaldu dira merkatuan. Horietako bat Euskaltel dugu.

Euskadin Euskaltelek beteko du Telefonikak galduko duen merkatuaren zati garrantzitsua. Hortxe dira, lehian, nor baino nor, bezero berriak eskuratu edota zaharrak mantendu nahian. Guztion onerako izan bedi!

1.- NOLA IKUSTEN DUZU TELEFONIKAK MONOPOLIOA GALTZEA?

2.- EUSKALTELEKO ABONATU BIHURTUKO AL ZARA?



elai beato
AKTORE - QUIDILARIA

1.- Bazen ordua! Jendearen-tzat ezin hobea izango da. Orain arte ezin zen aukeratu. Hemendik aurrera, ordea, bai.

2.- Bi hilabete inguru da-ramat Euskaltekin eta gus-tura nago. Orain behintzat merkeagoa da eta urte batzuetara, batek daki!



susana vazquez
KASLEA

1.- Oso ondo iruditzen zait. Gainera Telefonikak atera berri duen kanpaina beranduegi datorrelakoan nago.

2.- Hori egiteko Euskalteko informazio gehiago beharko dut, egoki aukeratu ahal izateko.



elena ortiz de landaluze
ADMINISTRARIA

1.- Primeran, monopolio onik ez dagoelako.

2.- Egia esan, orain bakarrik dei batzuetarako erabil daiteke Euskaltel eta nik egiten ditudan dei gehienak Gasteiz bertarako izaten dira. Horregatik, momentuz, ez du merezi.

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo
platerekin

Eguneroko Menua

Betiko kazuelatxoak



Gasteizko kale izendegia gizarteratzeko proiektua abiadan

GEU Elkarateak izendegia zuzpertzeko lantaldea eratuko du udaberrian

Gasteiz hiriko kale izendegia gizarteratzeko lan talde bat eratuko du GEUK aurtengo udaberrian. Egitasmo hau gizar-teresparru guztietara helarazi nahi du, gainera, Gasteizko Euskaldunon Elkarateak.

Dagoeneko lanean hasi dira GEUKoak plangintza orokorra prestatzen. Berau bukatzerakoan, beraz, horren inguruko xehetasun gehiago zuengana-tzeko prest izango gara.

Lan handiko proiektua denez, GEU Elkarateak denon esku-hartzea ezinbestekoa dela jakina-razi digu euskaltzale guztioi. Adi, beraz, datozen hilabeteo-tan informazio gehiago eskei-niko baitizuegu.

I. Kastresana

Kirol zelaiak euskaraz landatu

Euskara bultzatzea asmo duen Euskarriren lau taldeek bigarren bueltari ekin diote

EUSKARRI Kirol Elkarteko taldeak hor ari dira konpetizio ofizialetan era askotako emai-tzak lortuz. Helburuari tinko eutsiz, kirol arloari dagokio-nez, lau taldeen ibilbideak denetarik dauka. Halere, esan beharra dago bigarren urte honetan lorturiko emai-tzak hobetu egin direla.

Futbol taldeak (mutilak) bigarren bueltari hasiera eman dio eta sailkapene-an azkenengo postuetan dago. Hasiera ona egin zuten, baina lesioen era-ginez taldea behera joan da. Dena den, oraindik orain partidu asko falta da denboraldiari amaiera emateko, eta azkenengo partiduetan egindako jokuak esperantzarako bidea ireki du, talde honen ezaugarriarik aipagarriena gaz-tetasuna baita.

Areto-futbola taldea (neskak) denboraldi bikaina burutzen ari da. Aurten Araba herrialdeko mailan ari da, emaitza ezin hobeak lortuz. Hiru partidu

baino ez dute galdu eta sailka-penean hirugarren postuan dauzkagu. Iazko talde bera da gutxi gorabehera, baina maila altuago batean ari dira, eta konpetizio honetan gazteenak diren arren, hor diraute, goi postuetan. Iaz pastelari guinda



Futbol Aretoko neskegan ditu aurten Euskarrik emaitza onak lortzeko esperantzarik handienak

jarzea falta izan zuten, Kopako semifinaletan erori baitziren, baina aurten gora egiteko ilu-siorik ez da falta.

Saskibaloia taldea (neskak) hor ari da Senior Lehenengo mailan. Hasiera bikaina egin

zuten, saskiratze kopuruagatik ez ziren lehenengo multzoan sartu. Orain bigarren multzoan ari dira eta erraza izango zela ematen zuen. Baina usteak ustel, eta teoriak errezak ziren zenbait partidu galduz, sailka-penean erdialdean dauzkagu. Orain oso zaila dute lehen-go postua eskuratzea, baina lehe-nengo fasean lehendabiziko postuan dagoenari irabazi zio-ten. Honek esan nahi du talde honi edozein gauza gerta dakiokela; lehenengoari irabazi, azkenengoarekin galdu,...

Saskibaloia taldea (muti-lak) Senior Bigarren mai-lan ari da. Iaz Hirugarren mailako txapelkunak suertatu ziren. Aurten maila askoz sendagoa da eta taldea goi postuetan dago. Momentu honetan laugarrenak dira eta lehe-nengo buelta amaitutako-an, Lehenengo mailara igo-tzeko esperantza guztiak agortuak bazeuden ere, orain dena aldatu egin da (goian zeuden taldeek huts egin baitute) eta Euskarriko taldea lehenengo bien artean sailkatzeko aukerak dituela esan daiteke.

Joseba Gorostiza

MIKO
izozkiak



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
01002

28 28 39
Gasteiz

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



**J
A
T
E
T
X
E
A**

Agur, bihotzez!

Herrikoia liburu-
dendak apalak
hustu eta atearak
betirako itxi ditu

Herrikoia liburutegia betirako bere atearak itxi berri ditu. Aiztogileen kalean hasi eta azken hamar urteotan Plaza Berrian izan den liburu saltokiak ezin izan dio aurre egin lokaleko ugazabak egindako eskeintza ikaragarriari. Izan ere, orain arte alokairu errejimenean aritu izan badira, lokalak saltzea erabaki zuen jabeak.

Itxura guztien arabera kafetegi bilakatu nahi dute orain arte dendak okupatzen zuen lekua. Gabonak aldera 90 milioi eskatu zion jabeak liburu saltokiko buru zen Mertxe Lozanori. Honek, zenbaki horri aurre egin ezin zionez, Herrikoia desagertuko zela jakinarazi zien langile eta bezeroei.



21 urtez lagun izan dituzten bezeroak agurtu nahi izan zituen Mertxe Lozanok otsailaren 28ko festa hunkigarrian

Liburutegia baino askoz ere gehiago izan da azken 21 urteotan Herrikoia. Hitzaldiak, solasaldiak, bilerak, prentsaurrekoak... hamarnaka kultur eta bestelako ekitaldi burutu dira Herrikoia-aren lau paraten artean.

Herrikoia ehundaka bezero betilun uzten ditu. Baita guere, hasiera hasieratik egon baita Herrikoia aldizkari honen proiektua bultzatzen. Gasteiz liburutegia bera baino gehiago galdu du, Herrikoia-arekin, euskaltzale ororen lagun izan denak agur esan baitigu.

Asier Perez de Karkamo



Euskararen TXOKOKA

Salatu ditzagun euskarari eginiko erasoak, txalotu dezagun euskararen aldeko lana.

Argazkiak, salaketak, edota beste edozein informazio mota eskertuko dizkizuegu

Geu Gasteiz aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a

FAXA: 22 21 53

Udaleko Kirol Zerbitzuetako bazkide batek idatzi digu oraingoan, zerbitzu honek bere informazioetan euskara bigarren mailan uzten duela salatzeke. Izan ere, Kirol Zerbitzuko tasen igoeraren berri emateko bazkideei igorri zaien eskutitzean, agurra gaztelaraz eta euskaraz agertzen bada ere, tasak gaztelara hutsez ageri baitira.

Era berean, Kirol Zerbitzuak Viajes Udala enpresarekin batera antolatzen dituen bidaien informazioa gaztelara hutsean argitaratzen dela jakinarazi digu lagun honek ere.

Kirol zerbitzua, Udaleko Hezkuntza, Kultura eta kirol arloko zinegotziaren ardura bat da.

OFERTAS ESPECIALES PARA ABONADOS
A Instalaciones Deportivas Municipales

CUALQUIER PRODUCTO NIEVE Y AVENTURA NEW SPORT QUE SE COMPRE EN VIAJES UDALA 10% DESCUENTO IMPRESCINDIBLE ACREDITACION ABONADO

SAJUDAS DIA SABADOS Y DOMINGO BUS MAS FORAITE 4.000 PTS.

Control de Arriaga, 3
Tel: 22 13 62
Paseo Lorrua, 1
Tel: 13 44 04

NEW SPORT
nieve 97/98

DESCUENTO 10% PARA ABONADOS

La mejor nieve con NEW SPORT

ZURE GUTUNEN, FAXEN ETA ARGAZKIEN ZAIN GAUDE.
GARRANTZITSUA DA, BENETAN. ESKER MILA!

HARPIDEDUN! DATOZEN HILABETEETAN AURTENGO KUOTAK KOBRATUKO DITUGU

HARPIDETZA TXARTELA

AGUR

Izena-Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: _____ solairua: _____ Kodea: _____ Herria: _____

Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____ Telefonoa: _____

Kuota: **1.500 pzta. urtean**

Kontu korrontea:

entitatea

bulegoa

kontrol
zkia

kontu zenbakia

Pedro Asua, 2, 3 a 01008 Gasteiz tel / fax: 22 21 53

Zorionak Ikasbidea!

Duranako Ikastolak 25 urte bete ditu

"Ikas-Bidea ikastolak 25 adar, loreak mila eta hamar" lemapean, Duranako ikastolak, bere 25. urteurrena behar den bezala ospatu asmoz, hamaika ekitaldi antolatu ditu. Arabako lehenengo ikastola publiko honek ondo merezia du guztion eskerrona.

1973. urtea gehientzat urrun egon arren, Ikas-Bidearen inguruan mugitu diren hainbat lagunek garai hura bizirik izango dute bihotzean; urte horretan, Gasteizen, hezkuntza publikoa euskaraz jaio baitzen.

Hiru eta lau urteko 50 ikaslek abentura honi ekin zioten Gazalbiden egokitu zituzten gela batzuetan. Arabako Foru Aldundiak dirua jarritz ametsa izan zena errealitate bihurtu zen. 1976an Ikas-Bidea fraide orden batek Duranan zeukan egoitzara eraman zuten. Orduz geroztik urte dexente igaro dira eta hezkuntzan sortu diren behar berriei erantzutea

funtsezkoa da. Horrexegatik, Ikas-Bidea ikastolako zuzendaria den Alfredo Zaldibarrek aipatu bezala, "ikastolak daukana egokitu beharko da. Hezkuntza Erreformak eta sartu diren arlo berriek, teknologia kasu, berrikuntzak eskatzen dituztelako."

Gaur egun, adina guztietako 1300 ikasle inguru egunero Duranaraino hurbiltzen dira. 3 urtetik hasita, ikastolak hezkuntza integrala eskaintzen die; haur horiek ikastetxez aldatu gabe, Batxilergoa eta UBI maila arte hel daitezke, horrela nahi izanez gero.

Ikasteaz gain, eskolaz kanpoko ekintza anitz prestatu ohi ditu Gurasoen Elkarteak.



Hauen papera oso garrantzitsua izan da ikastolaren historian. Hasierako urteetan barneko antolamenduko erabakiak haiek hartzen zituzten.

Hau dela eta, askotan eta oker, Ikasbidea ikastolak sistema mixto baten bidez funtzionatu duela aipatu izan da.

EKITALDIAK

Ikas-Bidea ikastolak bere urteurrena ospatzeari ekin dio dagoeneko. Joan den hilean, adibidez, Gasteizko hainbat kale eta plazatan euskal eskontza baten antzezpina ikusi ahal izan genuen. Halaber, 25 zuhaitz landatu zituzten ikastolako inguruetan otsailaren amaieran.

Hile honen lehenengo egunetan Kultur Etxean burutuko diren hiru hitzaldietan, telebistak eta teknika berriek hezkuntzan duten eragina aztertuko da. Halaber, Eskolaren Hezkuntza Proiektua eta gurasoen parte-hartzea jorratuko da.

NARRATIBA LEHIAKETA

Ekitaldi kulturalaz gain, Ikastolak narratiba lehiaketa bat antolatu du unibertsario ez diren Arabako ikasleentzat. Lanak aurkezteko epea apirilaren 24an bukatuko da eta sariak egongo dira. Idazlanaren gaia libre izango da. 3 eta 7 urteko umeek ere parte hartzeo aukera izango dute "Makilakixki" ipuinaren inguruko marrazkiak eginez.

Oinarriak hartzeko ikastolara jo.

Maiatza eta ekainerako antolatu diren ekitaldien berri hurrengo aleetan emango dizuegu; adi egon!!

Raul Saez de Buruaga

Principalaren eskeintza

Triki-bertsoa, Kepa Junkera eta pailazoak martxoan

Otsailaren 28ko bertso saioa oraindik ere gure oroimenean dugu eta jada abiadan dira Principal Antzokiak martxorako iragarri dituen ekitaldiak. Horien artean euskaraz eskeinitako direnak gutxi batzuk besterik ez badira ere, ohituak gaudenarentzat eskeintza oparoa dela esan daiteke.

Ekitaldiak martxoaren 3an, asteartean, 20:30etan hasiko dira, triki-bertsoaren bigarren saioarekin. Oraingoan Maixa ta Ixiar taldea izango da bertsolarien doinuak jarriko dizkiona. Bertsolariak, bere aldetik, Xabier Amuriza, Ion Sarasua eta Igor Elortza izango ditugu.

Trikiarekin segituz, Kepa Junkerarena da, ziurrenik, martxorako prestatu diren saioen artean erakargarriena. 21ean larunbatan izango da, 20:30etan. Berarekin batera, Julio Andrade, Carlos Beceiro, Sebastian Rubio, Igor eta Arkaitz izango dira laguntzaile.

Hurrengo egunean, hau da, igande 22an, 18:00etan, Gari, Montxo eta Jose Lontxo paila-zoek 'Tutik ere Clowns' erakustaldia eskeiniko dute txiki eta ez hain txikientzat.



A. P

bar • restaurante
Portal del Rey 9
albéniz
GASTEIZ

★ TABERNA
ARABA
JATETXEA
BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

ONGI ETORRI
xurrut
KUTXI 103
GASTEIZ

plató
TABERNA
Zaldiaran Plaza, 10
22 65 64
GASTEIZ

Igartza Literatur sorkuntzako beka

Beasaingo Udalak antolatzen du

Beasaingo Udalak I. Igartza Beka antolatu du, idazle berriei zuzenduriko literatur sorkuntzako laguntza, hain zuzen ere. Ekimen honek, gainera, bertoko CAF enpresaren eta Elkar-lanean argitaletxearen babesak du.

Bekak, 500.000 pezetako diru-laguntza izango du eta narratibazko lanak egiteko proiektuei zuzenduta dago, beti ere euskarazkoak eta jatorrizkoak izaki. Idazle berrientzako saria denez, izen-emaleak 35 urte bete gabeak izan behar ditu eta lanik argitaatuak izatekotan, bi liburu baino gehiago dituztenak ez dira onartuko.

I. Igartza Literatur Sorkuntzako Beka jasotzeko bere izena eman nahi duteneak holako betebeharrak jarraitu

behar ditu:

- Landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki iritzitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumentua, egitura luze-
ra, estiloa...

- Idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, idazlanaren zati bakarra osatzen duena.

- Gutunazal itxia, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta nortasun agiria-
ren fotokopia.

Beasaingo Udala
Euskara Zerbitzua
Loinazko San Martin plaza
20.200 Beasain
tfnoa: 943 88 75 12

adi
datorrenaki!

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

**CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

GEUREKIN MENDIRAREN martxoko txango paregabea

Ibernalo - Kostalera (1.234) - Ioar (1.416)

Toloño ertz batean, Kantauriko mendikatean, Kostalera bestean, Kodes mendilerroan, ia Arabako hegoalde guztia zeharkatzen duen mendikateak, sistema geologiko bakar bat osatzen du. Harresi erraldoi bat bezala altxatzen da, Arabako mendialdea, Arabar Errioxa eta Ebroko sako-nunea sakabanatuz. Mendigoizaleak izanik gure aurrean eskeintzen zizkigun aukerak kontaezinak dira, eta GEU GASTEIZkook badakigu alde horietako mendietara igotzea zer den (Toloño orain dela gutxi, iaz Cruz del Castillo izenekoa). Oraingo honetan ekialdean dagoen Kodes aldera joko dugu.

Kostalera edo Ioar gailurretara igotzeko, bai Arabatik, baita Nafarroa aldetik ere egin daiteke. Nafarroatik, Azuelo udalerritik oso igoera polita dago, Kodesko Monolitoen aurretik pasatuz, Oso ospetsuak dira Azueloko "bi ahizpak" deitutako harri izugarri horiek. Merezi du haraino hurbiltzea nahiz eta mendira ez igo, gure aurrean azaltzen zaigun handitasun hori ikus ahal izateko soilik.

Bertako edozein biztanlek ederki kontatuko liguke hango istorio zahar batek narratzen duena:

Bazeuden behin batean Azue-

lon bi neska umezurtz bere amaorde gaizto-arekin bizi zirenak.

Egun batean bera ez zegoela ohartu zirenean, alde egitea erabaki zuten basoan sartuz. Amaordea konturatu zenean sorginkeria bat hota zien: "Harri bihurtuko ahal zarete!". Ez zituzten berriro ikusi, baino hurrengo goizean Kodeseko bide

ondoan bi harkaitz izugarri handi agertu ziren zuhaitz gainetik..

Kontaera zaharrak aparte utziz, igo gaitzen mendira. Kanpezuraino hurbilduko gara, Ibernalo baselizara. Handik, arte eta ezpelez inguraturik, bide bat jarraituz, Nazar mendatera (1170m.) ailegatuko gara. Pasaleku hau garrantzi handikoa izan da historian zehar, hamendik Araba eta Nafarroa komunikatzen baitziren. Eta ikus daitekeena, eguraldiaren baimenaz noski, benetan itzela da. Iparraldean Araba eta alboetan Agilar eta Berrotza nafartar ibarrak, zoritxarrez azken urteotan hustutzen ari direlarik. Kodes mendilerroko gailurrik garaiena, Ioar, gure eskuinetara, eta ezker aldera berriz, Kostalera, askoz ere basa-



Kostalera eta Ioarrek Errioxako ikuskizun paregabeaz gozatzeko aukera eskeintzen digute

tiago, harritsuago, eta batez ere antenarik eta errepetidorerik gabe (tamalez ezin da gauza berdina esan Ioarren kasua). Hori bai, bidea markatu zutenak itsuak kontutan hartuz egin zituela pentsa daiteke, hain ageriak baitira inguru horren erdian pintatutako geziak.

Bidea oso entretenigarria da eta batzutan laberinto baten moduan desagertzeraz doala ematen du. Arrisku txiki bat ere egon daiteke eta horregatik kontuz ibili beharko dugu, batez ere gure azpian azaltzen diren harrizko horma izugarri horiek ikusterakoan. Ezpelak oso ondo etorriko zaizkigu eusteko orduan, eta horrela, gora eta behera, bat-batean Kostalera harro harro gure aurrean azalduko zaigu. Hasieran nondik igo ez da argi ikusten baina monolitoa zeharkatuz bide eroso bat aurkituko dugu. Jarraitu eta goraino, lehen esan dugunez, eguraldiaren baimenaz noski.

Eta orain, buelta eman eta Ioar-

rreruntz. Bide leuna eta zabala. Ibili eta ibili, pagadi batetik igo eta gero, Ioar. Sorpresa gizakiok egindako errepidea goraino ailegatzen da, alperrenak kotxez joan daitezela. Eskerrak bista ikusgarriek orekatzen duten naturaren kontra egindako suntsidura: beheko aldean, Agilar ibarran, aipatutako Kodeseko Monolitoak. Bestaldetik, Entzia, Aizkorri, Aralar... eta Pirinioak. Arnasa hartu eta beheko bideari ekin. Errepidea segi eta aukera badugu bidemotzak hartuko ditugu. Kanpezura heldu, atsedean apur bat hartu eta etxera.

Beste batetarako utziko dugu Kodesera joate hori Nafarroa aldetik turismo pixka bat egiteko. Monolitoak ikusi, paseo txiki bat eman eta gero, esate baterako, ondo bazkaldu nahi baldin baduzu, hori bai nafar erara, Espronceda izeneko herrira inguratu eta 'Txankete' tabernari buruz galdetu. Ez zara damutuko. Baina gaurkoz bokata eta zahatoarekin konformatu behar. Eta txurrutada bat edaterakoan kontutan hartu zahato guztiak ez direla berdinak. Hemen ere klaseak badaude.

Kike Korres



Gero eta handiagoa da Geurekin mendira gatozen lagunok osatzen dugun taldea. Ea zu noiz animatzen zaren!

GEUrekin MENDIRA

IBERNALO-KOSTALERA (1.234)

IOAR (1.416)

martxoaren 15ean

Irteera: Goizeko bederatzi eta erdietan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean. Kotxez joango gara

Itzulera: 4rak / 5ak aldera

Ibilbidea: Ibernalo Santutegitik Nazar mendaterano (1.170). handik Kostalarara igo. Jeitsi berriro Nazarreraino eta hortik Ioar mendiraino

Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero, deitu telefono honetara:

14 01 58 (Kike)

irakurlearen postontzia

Euskara irakasteko baimenik ez!

Gasteizko IKA

Azken egunotan euskalgintza eta, zehatzago esanda, helduen euskalduntze-alfabetatzea hainbat komunikabide eta alderdiren ahotan izan dugu. Bazter askotxo nahastu dituzte. Dena den, oraingo hone-tan ez diegu eraso horiei erantzun nahi, euskal herritar guztiok eus-kara ikasteko dugun eskubidea aspaldian kolokan jartzen ari diren politikari baizik.

Orain arte euskaltegien egoera ez da oso ona izan, baina ikasi nahi zuten euskal hiritar guztiek euskaltegira joan eta euskalduntze-alfa-betatzeari ekiten zioten, nahiz eta horretarako matrikulak ordaindu behar izan. Ikasle horien truke euskaltegiok dirulaguntza jakin bat jasotzen genuen; matrikulazioak gora eginez gero, dirulaguntzak ere handitu; matrikulazioak behera eginez gero, dirulaguntzak murriztu.

1995. urtera arte horixe izan zen jarrera, baina ordutik hona egoe-ra dextente aldatu da. Gaur egun HABEk diru kopuru jakina ematen digu, baldintza batzuk betetzen baditugu: gutxieneko ikasle eta orduko matrikula-saria, hainbat baldintza akademiko, dirulaguntzak emateko epea... Baina kezkarriena ikasturtean eman dezakegun ordu kopuruarena (neurriraketa) da. Zer esan nahi du horrek?

Guk ikasturte osoan zehaztutako ordu kopurua baino ezin dugula eman; hau da, ezartzen diguten ordu kopurua gaindituz gero, zigo-

rra. Zein zigor? Isuna.

Euskalduntzea helburua bada, sinestezina dirudi, baina halaxe da: 96-97 ikasturtean Arabako IKAK neurriraketan ezarritako orduak gainditu zituen, hau da, baimendutako baino 29.000 eskola-ordu gehiago eman genituen. Hori dela eta, HABEk 2 milioi eta erdiko isuna ezarri digu. Zigorrik ez jasotzeko 90 bat ikasle utzi behar genituen kalean, horietako batzuk Arabako Errioxan, izan ere, zehaztutako neurriraketa betez gero, bertako ikasleen %10ek ez luke lekurik izango euskaltegian. Ikusten duzue, "numerus clau-sus" a ezartzeraz bultzatu nahi gaituzte, dauden giza zein ekonomi baliabideei atarramendu handiagoa ateratzearen aitzakiapean.

Zer esango diogu euskaltegira etortzen den ikasleari? "Sentitzen dugu, baina Helduen Alfabetatzea eta Berreuskalduntzea helburu duen Erakundeak ez digu zure matrikula onartzeko baimenik ema-ten". A zer lelo aurpegia eramango duen ikasle horrek!

Gure ustez, euskaltegiek duten balio soziala eta egiten duten lana onartu beharra dago. Sektorearen egoera normalizatu behar dugu, baina inondik inora ez, euskara ikasteko eskubidea ukatuz. Gizarte-an eskaria euskaltegien eskaintza baino handiagoa bada, Adminis-trazioak lagundu egin behar du, ez oztopoak jarri.

Jon Maia gazteari

Patxi R. de Eribe Oz de Lejarazu

Errenterian, 1998ko azaroaren 24an

Maia gazteari:

Barka ezazu nere ausardia. Euskaltzale amorratua eta arabar sutsua naiz. Egia esan, euskaldun izateko bidean nabil. Aurreko hilabete-an BEGIRADAK atala irakurtzeko parada izan nuen.

Bat nator guztiz zure artikuluan aldarrikatu zenuenarekin.

Eskerrak eman behar dizkizut: mila ezker, bada! Mila esker Gasteizen euskararen alde egiten duzun lanagatik.

Nahi nuke euskaraz hobe moldatu gutun hau apurtxo bat gehiago luzatu ahal izateko.

Besterik gabe, agur.

Ahate zahar eta itsusitxo bat



LANDABURU AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK *euskaraz !!*

Araba ondo doa beste norbaiti kopiatutako esaldia izateaz gain, bertako politikarien ahotan sarri askotan entzuten ohitugaren hitzak dira. Erakundeendatuek diotenez, Arabako ekonomiak gora egin du izugarri azken urtean eta langabetuen kopuruak behera. Datuak datu, Arabako erakundeek egunero komunikabideetan plazaratzen dituzten datuei eta egoera idilikoari buelta ematen dieten arrazoiak barra-barra botatzen dituzte sindikatuek eta langabetuekin lan egiten duten elkarteek.

ARABAKO EKONOMIAK azken urteotako emaitzarik onenak lortu zituen 1997an; esportazioek gora egin dute, ekoizkotasuna inoiz baino handiagoa da eta aurreko urtean baino 8.000 langabetu gutxiago daude Arabako Diputazioaren datuen arabera.

Emandako zenbakiak ez ditu inork zalantzatan jartzen. Josu Huertas, LABeko kideak baieztatu duenez, "industria ekoizpenak eta aktibitateak gora egin dute, baita enpresarioek jaso duten mozkinak ere; Industrian errendimeturik altuena lortu da."

Hala ere, erakundeek eta sindikatuek datu horiek ikusita egiten duten interpretazioa oso ezberdina da. Erakundeek hazkundearen arrakasta azpimarratu eta Araba ondo doala lau haizetara zabalitzen duten bitartean, sindikatuek etekinen igoera somatu duten bakarrak enpresariak izan direla salatzen dute. Euren ustez, aberastasunaren banaketan dago arazoaren konponketaren koska.



Araba oso ondo doa baina batzuek ez dute igartzen

Egunez egun, aberastasun gehiago ekoizten dela onartu eta egoeraren beste aurpegiari ere erreparatu behar zaiola azpimarratu dute: pribatizazioa, gastu sozialen murrizketa eta lan merkatuaren malgutasuna dira azken urteetako joera nagusiak.

ESK-CUISeko Iñaki Martinen ustez, erakundeek ematen dituzten datu eta zenbaki guztiek gizarteak bizi duen errealitatea ezkututzen dituzte: "Izan ere, produktibitatea eta etekinak hazi egiten diren bitartean, Gasteizen gero eta pobrezia handiagoa antzeman daiteke, gero eta familia gehiagok behar du erakundeen laguntza aurrera egiteko eta sendiak ematen duen babesagatik ez balitz gazte asko egoera larrian egongo lirateke".

Langabetuen Asanbladaren datuen arabera familiak ekiditutako pobrezia hori kontutan hartuta, Gasteizko biztanleriaren heren batek txirotasun arrisku erreala du; Langabetuen Asanbladako Luis Carmonak salatzen duenez, azken hamar urteetan ongi izatearen hirian txirotasuna bikoiztu egin dela esan daiteke.

97a, mirariaren urtea

97. urtearen balantzea egitean Arabako ekonomiaren lorpen nagusiak multinazionalen inbertsioak eta langabeziaren jeitsiera izan dira iturri ofizialaren arabera. Iaz Daewoo eta Transpapelen ezarpenak hitzartu ziren eta 8.000 lanpostu sortu ziren.

Ongi izatearen paradisuaren hiria den ospea du Gasteizek. Hala ere, gizartearen behar berriei erantzuteko zailtasunak daudela ematen du. Diputazioak eta Jaurilaritzak gizartearen eskaera berriei egokitzeko beharra aitortu dute. ESK-CUIS eta Langabetuen Asanbladako ordezkariak ere gauza bera aldarrikatzen dute: *Gizartearen egoera asko aldatu da, eta beraiek lehengo eskemarekin egiten dituzte aurrekontuak: zaharretxeak, gutxituentzako laguntzak,...eta antzerakoak betetzeko. Arazoa, alabaina, ez da egoera berriaz ohartzearekin konpontzen, behar berriei aurre egiteko diru arazoak baitaude.*

Egoera ekonomikoa hobea denean haziendek

Sindikatu eta agente sozialen ustez bi puntu horiek ere zehaztu behar dira euren eragina ondo ulertzeko. Eguzki talde ekologistak enpresa handiei errez-tasunak emateko politika gogorki salatu eta etorkizunean izango duen eragin kal-tegarria iragarri zuen. Alberto Friasen ustez, "datozen urteetan Diputazioaren kargu egiten direnek oraingo Gobernu foralak erakarrita etorri diren enpresa-bonba horien eragina zuzentzeko dirutza gastatu beharko dute". Eguzkiren ustez, Diputazioaren gidariek "edozer gauza egiteko gai dira, egunkarietako titularre-tan lanpostu berriak sortuko dituztela ira-kurtzeko".

ESK-CUIS sindikatuaren ustez ere, era-kundeek ustezko paradisu fiskalak sortu nahi dituzte enpresak Arabara erakartze-ko. Eta Langabetuen Asanbladaren ordezkariak dioenez, "Diru kopuru itze-lak jasotzen dituzte eta gainera, politika fiskala beraientzako oso aproposa denez, oso zerga gutxi ordaintzen dituzte".


Elkarizketatu guztiak ados agertu dira puntu horretan: kanpotik etorritako mul-tinazionalak jasotzen dituzten laguntzak ez dira justifikatzen, ez sortutako lanpos-tuetan ezta gizartearentzako sortzen duten aberastasunean ere.

Arabian iaz sinatutako behin betiko kontratuei buruz, Gobernuak UGT eta CC.OOekin adostutako Lan Erreforma gogoratu du ELAko Sebas Andreuk: "Egia da horiek ugaltu egin direla, baina horrek azalpen erraza du: langileak bota-

tzea inoiz baino merkeagoa da".

Hala ere, oraindik milaka dira behin behineko lan egoeran dauden lagunak, batez ere gazteak, eta batez ere emaku-meak". "Sindikatuan egunero ikusten ditugu bi edo hiru ordutako kontratuak, asteburuetakoak,... Eta horiek kontratuak dira estadistikoki, baina ez dute bizitzeko ematen" Iñaki Martinek azaldu duenez.

Lan horietako asko ETTn bitartez egi-nak daude eta, horren ondorioz, dexten-tezko diru murrizketa dute. Gasteizen hogeita hamar ETT daude, "Hogeitamar 215.000 biztanledun hiri batean. Eta ez da ahaztu behar ETTek bitartekaritza lan hutsa egitearen truke langilearen soldata-ren zati bat jasotzen dutela" Josu Huerta-sek azpimarratzen duenez. Iaz, Arabako hiriburuan sinatutako kontratuen %22 enpresa horien bidez egin zen.



Ongi izatearen irudikeria

diru gehiago jasotzen dute eta egoera larrian dauden hiritarren beharrei erantzun hobea eman diezaieketela suposatzen da, baina lan-gabetuekin lan egiten duten elkarteek lagun-tzen legea ez dela betetzen salatzen dute.

Eusko Jaurlaritzak banatzen dituen IMI eta AES dirulaguntzek baldintza zehatzak exiji-tzen dituzte. Baina baldintza horietatik kanpo ere, oztopo asko jartzen dituzte aurrekontuak ez gainditzeko. Beraz, uztailen dirua amai-tzen bazaie, abuztuaren laguntza eske joaten denak ez du deus hartzerik izaten, azaldu du Iñaki Martinek. Hori dela eta, lagun asko eskubide osoz eskatzen duten dirulaguntzarik gabe geratzen dira: Eta lan astea murriztea,

eta hori guztia oso ondo dago, baina erreali-tatea denontzako lanik ez dagoela da, horre-gatik laguntza sozialak erabat beharrezkoak dira.

Legez kanpoko jarrera da, erabatekoa, baina zaila da horri aurre egitea: Kontutan hartu behar da ez dela batere atsegina prestazioak eskatzen joatea, gizartearen presioak eskean zaudeneko irudia ematen dizu, eta oztoporik txikiena jartzen dizutenean etsitzea ulertzekoa da. Bestetik, langabetuek erakundeen aurka joateko aukera gutxi dute: Ez gara epaiketa kontenzioso batean sartuko, erantzuna hemen-dik bost urtera jasotzeko, ezta? Luis Carmo-nak aipatu zuen lez.

Erantzun sindikala

Egoera horrela, sindikatuak egoerari irtenbideak bilatzeko lanean ari dira: 35 orduko lan asteari buruzko eztabaida Euskal Herrira ere iritsi da eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua ahaztu ez den aldarrikapena da.

ELA eta LABek azpimarratu dutenez, 35 orduko lan astea eta aparteko orduen desagerpena eskatzeko adostasuna lortu dute sindikatuak eta Lan Harremanetarako kontseiluaren bileretan mahai gainean jarri dute gaia. CONFEBASKEk eze-tza eman du jadanik, baina

Sebas Andreuk dioenez, "Enpresariak konbentzitu behar ditugu, lan astea %10 bakarrik murriztuz, lortu daitezkeen etekinak oso handiak direlako".

Borroka sindikala irabazteko klase kontzientzia berpiztearen beharra azpimarratu du Andreuk, eta Huertasek lanak murriztuta ere soldatak mantetzea dagoela ziurtatu du: "Ekoizkortasuna asko aldatu da, duela hamar urte hiru langilek egiten zutena orain batek egin dezake, baina lan astean ez da aldatarik egin. Enpresariak aurrerapauso bat emateko ordua da, eta gainera egin beharreko gauza da".

Herrialdeko erakundeei dagokionez ere eskaera zehatza dute sindikatu eta elkarte sozialek: fiskalitate aldaketa. Beraien ustez, indarrean dauden Lege fiskalek langileen soldata eta zergak ondo lotuta duten arren, enpresa handiek zirrikituez baliatzen dira zergak ekiditzeko. Iaz, Araban, iruzur fiskala dela eta 100.000 milioi pezeta gutxiago jaso ziren.

ELAren datuen arabera, ogasun zerbitzuek jasotzen dutenen %80 langileen poltsikoetatik irteten da, gizartearen aberastasunaren %60 enpresen esku dagoen arren.

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI



emakumearen nazioarteko eguna

martxoak 8	13:00
martxoak 8	15:00
martxoak 9	19:00
martxoak 10	19:30
martxoak 11	19:30
martxoak 12	19:30
martxoak 13	19:30
martxoak 14	10:00 - 14:00
	16:00 - 19:00
martxoak 16	19:30
martxoak 17	19:30
martxoak 24	19:30
martxoak 25	19:30
martxoak 26	19:30
martxoak 27	19:30

Manifestazioa	San Anton plaza
Herri Bazkaria	
'Carros de dinero' antzerkia	Beñat Etxepare Antzokia
Hitza: 'Formación como clave del éxito profesional'	
Hitza: 'Nuevos avances en la reproducción humana'	
Hitza: 'Cáncer de mama, enfrentarse al reto'	
Hitza: 'Los capítulos de la vida'	
Gorputz Adierazpenerako lantegia *	
Gorputz Adierazpenerako lantegia *	
Hitza: 'Comic y estereotipos sexistas'	
Hitza: 'Mujer y malos tratos'	
Hitza: 'La tolerancia como base de la convivencia humana'	
Hitza: 'Acciones en torno a las mujeres desde el Ararteko'	
Hitza: 'Drogas y SIDA'	
Hitza: 'La mujer en convivencia con enfermos de Alzheimer'	

Goiuri Jauregia
Goiuri Jauregia
Goiuri Jauregia
Goiuri Jauregia
Judimendi Giz. Etxea
Judimendi Giz. Etxea
Goiuri Jauregia
Goiuri Jauregia
Goiuri Jauregia
Goiuri Jauregia
Goiuri Jauregia

martxoak 3-30

Erakusketa: 'Emakumeen artea Gasteizen'

Goiuri Jauregia

* Dohainik; izena emateko ostegunetan 19:30etatik aurrera 281842

Argazki - Estudio
Eramun

Heracio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Libertad, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

Zuhaitzi

PAPERDENDA

den-dena
biziriklatua

OPARIK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIRUGINTZA
Kutxilleria, 6 behe • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

"Nire ametsa: Euskal Herrian eta Polonian aldi berean izatea"

Kinga Kozurnok oraina bizi ohi du. Gaur, Gasteizen, bihar, nork daki, Polonian beharbada. Dakizkien hizkuntzekin lan arazo haundirik ez duelakoan gaude, baina bizitzan beste behar batzuei ere erantzun behar zaie. Euskalerria ezagutzen du, eta hemendik ateratzen den bakoitzean propaganda ona egiten digu. Oso ondo hitz egiten du euskaraz, "atzerritarra naizenez, hanka sartzeari ez diot horrenbeste garrantzirik ematen. Kanpotarra izateko ez dudala gaizki hitz egiten komentatzen dit jendeak".



OSO GOGOR jotzen zuen hotzak Poloniako iparraldeko herri horretan. Negua bere alderik gogorrera erakusten ari zen. Hala ere, hogeia gradu zero azpitik horiek ez ziren oztopoa parke eder horretan elurrarekin jolasten ari ziren haurrentzat. Bizitza osoa aurretik zeukaten. Nork esango ziokeen Kingari une hartan, urte batzuen buruan herritik urrun joango zela; telebistak zioenez, egoera latzean bizi zen herri batera. Hautzaroan ez zuen horretan pentsatzen; ezta, ikasketekin jarraitu ahal izateko, Polczyn Zdrój-etik, bere jaioteritik, aterako zela ere.

Baina holan izan zen; Poznan hiriak unibertsitaterako atek ireki zizkion. Zortzi urte eman zituen hor eta bizitza erabat aldatuko zitzaion. Poznan eta Bilbo hirien arteko

konbenio ekonomikoa dela eta, horko unibertsitatean euskaldunen berri daukate. Zornotzako irakaslea den Jokinek hispaniar filologiako ikasleei Euskalerriaz mintzatzeko aukera izan zuen; horrelaxe maitemindu zen Kinga. Bizitzaren kasualitateek, Frantziako gazte internazionalisten topagune batean, mutil gasteiztar bat ezagutzera eraman zuten. Horrela, Poloniara buelta-tzean, unibertsitatean euskara hizkuntza hautatzea errazago egin zitzaion. Uda partean Zornotzako barnetegira etortzea eskeini zitzaion ikasleei eta Kingak,

Frantziako
gazte
internaziona-
listen
topagune
batean
gasteiztar
mutiko bat
ezagutu
zuen Kingak.
Gero
gerokoak.

bihotzak jota, egoera aprobe-
txatu zuen.

Orain dela urte eta erdi bat
ezkondu zen eta Gasteizen
gustora egon arren, Polonia-
ra itzultzea ez litzaioke
inportako. "Hemen oso ondo

nago; pentsatzen dut oporre-
tan bezala nagoela. Oporrak
hartzen dituzunean, primeran
zaude, baina zauden tokia ez
da zure benetako etxea.
Ematen du ez dagoela hain-
beste ezberdintasunik, baina
badago." Bere ustez, "eus-



"Polonia herri grisa da. Gauza politak ditu,
baina zentzu klasikoan, herriak eta
horrelakoak aurkitu nahi izanez gero, ez dituzu
aurkituko"

kalduna nahiko herri zintzoa
eta zuzena da. Lekua asko
gustatzen zait; herriak eta
paisaia". Polonia, berriz,
"herri grisa da, gauza politak
ditu, baina zentzu klasikoan,
herriak eta horrelakoak, aur-
kitu nahi izanez gero, ez
dituzu aurkituko. Oso poliki
ikusi behar duzu dena, eta

Batzuetan orduan bai
ikusiko ditu-
zula gauza
bakarrik egotea interes ga-
rriak..."
gustatzen zait.

Hori ere **Euskaldu-
nak, egia-
tiak**

euskaldunen-
gandik
desberdintzen
gaituen
ezaugarria da.
Euskalerriak
eskeintzen
dion paisaia
ederra bada
ere, "gehiegi
iruditzen zait.
Polonia, nahiz
eta mendiak
eduki, nahiko
laua da. Egu-
raldiagatik

edo, landaretsua ere bai.
Hala ere, pertsona berezien-
tzat egina dago. Hau da nire
ikuspegia. Horko jendea ere
oso ona da, baina ez du adie-
razten. Hemen, ordea, hasie-
ra-hasieratik erakusten dizu-
te nolakoak diren, zareten...
Hemengo jendeak ez du
gezurrik esaten, baina altuegi
hitz egiten du. Nire herria
askoz ixila eta lasaiagoa da."

Batzuetan bakarrik egotea
gustuko du. "Hori ere des-
berdintzen gaituen ezaugarri
bat da. Hemen indibidualis-
moa ez dago oso markatuta,
gauzak egiteko beste batekin
edo taldean egiten dira. Pres-
tatzen diren ekitaldiak, ala-
baina, primeran antolatzen
dira. Polonian ez da horrela,
oso zaila da zeozer antola-
tzea. Pertsona bakoitzak
badu bere asmoa; buru
bezanbait aburu... Hemen ez,
nahiko ados egon ohi dira
taldekideen artean."

RAUL SAEZ DE BURUAGA

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 27. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobeia

taberna

Kutxileria 23



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO



RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

Izena: Kinga Kozurno.

Urteak: 29 urte.

Lana: Bilarrak egiten dituen enpresa batean, atzeritar departamentuan.

Musika mota: Lenny Kravitz eta Poloniako talde bat.

Liburu bat: Obabakoak oso liburu polita da. Gastelera irakurri nuen eta nire karrerako tesia

horren inguruan datza.

Zaletasunak: Irakurtzea eta argazkiak ateratzea.

Jaki gustukoena: Nire senarrak prestatzen duen patata tortila.

Personengan gustuko duzun hiru ezaugarri: Interesgarria eta zintzoa. Nire ustez hori da garrantzitsuena.

Personengan gustuko ez duzun

hiru ezaugarri: Gezurtia, maltzurra eta berbatsua izatea.

Zeriaz damutzen zara zure bizitzan: Ez naiz ezertaz damutzen. Nahiz eta une batzuetan txarto egon, guztia etekina ateratzen saiatzen naiz.

Amets bat: Euskal Herria eta Polonia elkartzea. Bi lekuetan momentu berean izatea.

"Euskara oso hizkuntza orijinala eta lojikoa da"

Zenbat hizkuntza dakizu?

Ingelesa, gaztelera, errusiera, euskara, poloniera eta frantsesa ikasten hasi naiz.

Orduan, etxean zaila izango da hizkuntza bat hautatzea?

Oso argi daukagu, polonierara jotzen dugu. Neuk behar dut eta nire senarrak ikasi zuenez...

Erabiltzen al duzu euskara?

Gutxitan, barnetegian ezagutu nuen jendearekin; batzuetan antzokira joaten gara euskara entzutera.

Zer iruditzen zaizu euskara hizkuntza bezala?

Oso hizkuntza orijinala eta beste batzue-

kin konparatuz, guztiz ezberdina. Oso lojikoa da; arau batzuk daude eta segitu behar dituzu.

Gustoko al duzu euskara?

Bai, baina nahiago nuke euskaldun zahar batek bezala hitz egitea. Goenkalen, gehiegi atsegin ez arren, oso euskara polita eta bitxia erabiltzen dute.

Nola ikusten duzu euskararen egoera?

Euskararekin hasi nintzenean, galdetzen nion nire buruari zergatik menperatzen zuen hain jende gutxi euskara Gasteizen. Zurekin jaio ez den hizkuntza bat propioa egitea oso zaila da. Badakit euskaragatik jendea lanik gabe geratzen dela. Zerbait egin behar da hori gerta ez dadin eta euskarak gizarte osoan harrera ona izan dezan...



Baina hobetuz doa...

Orain badaude aukera gehiago, baina segun eta zein giroan murgiltzen den jendea. Hemengo jendeak zailtasun hau dauka; ez erabiltzearena, eta praktikan jartzearena. Oso giro berezietan behar-bada bai...

Ezagutzen al duzu Gasteizko giro hori?

Egia esan, ez dut ondo ezagutzen.



**EL
BAR
Kutxi**

e
g
u
n
e
k
o

m
e
n
u

EGO LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tfn. 11 88 95

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
 - Helduentzat
 - Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
 - Dantza

Uruguay, 9 • Tfn. 24 49 65
Abendaño 48 • Tfn. 22 34 33
GASTEIZ



Bacalao Giraldo


- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfn. 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfn. 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ

TRIKI BERTSOAK GASTEIZEN



**"Dios te salve bakailao jale
bost eta sei hamaika
txorixorikan ez baldin bada
berdin zaiola lukainka"**

Bai, berdin zaio lukainka, Santa eskean ematen den guztia eskertzen da, eta etxekoandreari sekulako lorak botatzen zaizkio, etxekoandreari bezala, etxeko nagusiari ere bai.

Gasteizko Antzoki Zaharrean etxekoandre eta etxeko nagusi asko zeuden, baina ez zuten inolako txorixorik edo lukainkarik eman behar izan bertsolariak botatako koplen ordainean. Txalo zaparradak nahikoa izan ziren trikitilariak eta bertsolariak hasiera ematen zioten ekitaldiari harrera ona emateko. Santa Ageda bezperan biharamona zen Santa Ageda eguna.

Zortzi lagun, bluxa beltza soinean, laukidun zapia lepoan eta makila eskuan zituztela Antzokiaren atzekaldetik sartu ziren. Dena ilun zen, baina argi-kanoi batek argitzen zituen eta poliki-poliki, tarteka ikusten zutenari koplak zuzenduz (tartean Xabier Riko), eskenatokitiraino iritsi ziren.

Agurraren ondoren musikariak aurkezpina etorri zen eta, hau katastrofea! Ez tonurik, ez eta erritmotik ez zuten bertsolariak errespetatu musikariak aurkezteko orduan. Aurkezpina egin ostean, trikitilarien txanda heldu zen. Kalejira batekin hasi zuten beren saioa eta ondoren, nola ez, fandango eta arin-arin bat. Doinu hauetan Imuntzok bere behatzetan duen trebezia ederki antzeman zitekeen.

Belokik, bere aldetik, lasaitasuna eta patxada azalduz eta jendeari naturaltasunen hitzeginez, jo behar zituzten kantak aurkeztu zituen. Izan ere, beste bi doinu gehiago jo zituzten, besteak beste, Tex-Mexaren errege den Flaco Jimenezen bat: 'Hey baby qué pasó?'. Baina noski, euskaraz egin duten bertsioa. Antzokiak eseri-

ta zegoen jendeak oso gustura hartu zuen kanta hau baina erderaz hasi ziren abesten. Euskaldunok egiten duguna gehiago entzun behar da!!

Denak batera

Bertsolariak eta trikitilariak batera ziren ondoren eta doinuak hala eskatzen zuenez, "lara-la-lai"-ren ondoren zetorren errepikapena, bertsolarik, trikitilarek eta bertan zen publikoak ere errepikatu zuten.

Bertsolarien agerraldi motzaren ondoren, trikitixaren formazio zaharra igo zen tranpaldora: soinu eta panderoa ahotsaren laguntzarekin. Gaur egun ez da sarritan ikusten formazio hau kontzertu batean, modernismoa dela eta (beste gauza askoren artean), baina eskertzekoa izan zen trikitilari bikote bat eskuak eta behatzak astintzen ikustea.

Abesti pare baten ondoren, beste hiru taldekideak hurbildu zitzaizkien beste hiru doinu jotzeko. Horietako batean Belokik sukaldari kutsua erakutsi zuen, kutxara pare batekin jarraitzen baitzuen, bixi-bixi eta

txukun-txukun, erritmoari.

Bertsolarien txanda

Hamabost minutuz soilik aritu ziren ondoren bertsolariak, inolako musika tresnarik gabe. Hiru gai ezberdin jorratu zituzten, gai bakoitzari doinu berezia jarritz. Olentzero izan zen aurreneko gaia, UAk gabonetan kaleratu zituen postalak zirela eta. Bigarren gaia Alaves, nola ez! Gipuzkoarrek Erreala eta bizkaitarrek Athletik duten bezala, arabarrok Baskonia eta Alaves dituzue (eta ez kendu, gainera!). Hirugarren gaia Dato kalean dagoen ibiltaria izan zen. Kaletik dagoen txutxumutxu batek dioenez sei hilabetetant hamalau kilo argaldu omen ditu Sebastian Lizasok.

Saio honetan bertsolariak inolako erritmorik eta tonurik jarraitu behar ez bazuten, Andoni Egaña bota berri zuen bertsorearen tonu berean hasi zen Imanol Murua abesten, eta egia esan, lanak izan zituen, ez baitzen behar bezala iritsi nota altuetara.

Sebastianen erantzunak jende-



IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXVSTA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

ari barre eragin zion. Eztarriarentzat arraultzak jatea ona zela esan zion Muruari, baina... Sebastianek bere tonua dauka, eta beste doinu batean ari zela ematen zuen (ondo etorriko litzaizkioke arraultzak eta tonua hartzeko zenbait klase). Agian konparaketa hau gogor xamarra gerta daiteke baina bukatzeaz dagoen pila bat ematen zuen Sebastian, ez baitzuen erritmoa pittin bat ere mantentzen.

Ordu t'erdi ea zuen saioak eta bukatu beharra zegoen. Imuntzo eta Belokik 'Kattalin' abestiarekin agurtu zuten saioa eta bertsolariek bertso banarekin, Gasteiko plaza txiki baina beroa agurtu zuten. Baina guztien gustuak betetzea oso zaila da eta Antzokian zegoen jendea bertso-egarriz geratu zen. Zorionez, otsailaren 28ko bertso saioan egarri eta gose horiek asetu zituzten.

TRIKI-BERTSOA AMAITUTA, MAIXA LIZARRIBAR IMUNTZO ETA BELOKIRENGANA ABIATU ZEN MARTXOAREN 3AN BERAIEI ZEGOKIEN SAIORAKO GOMENDIO ESKE

Maixa: Gustura geratu al zarete gaur gasteiztarrei eskeini diezuen kontzertuarekin?

Beloki: Gustura ez gara geratu. Batetik hiru bertsolari ziren eta bi oso berandu etorri dira. Orduan, zer gertatzen da? Ba... elementu asko sartzen dira gauzak ondo koordinatzeko: trikia, bertsoa, elkarrekin... Gero arazo teknikoak daude: tonuak, zer kantu aukeratu. Eta noski, ez baduzu aurretik entsaiarik egiten ba, nolabaiteko ziurtasun eza sortzen da.

Maixa: Bilbon bertsolari batzuekin eta Gasteizen beste batzuekin. Ondo konpontzen zarete guztiekin?

Beloki: Bilboko balantzea oso ona izan zen. Bilbon bi bertsolari izan ziren eta Gasteizen hiru. Elemento bat kentzen da Bilbon, eta errazagoa da koordinatzeko. Bil-

bon lehenxeago etorri ziren eta denbora eman zigun ziurtasunez aritzeko. Gasteizen bat gehiago izatean eta beranduago etortzean bat-batekotasunari utzi diezkiogu ate guztiak zabalik.

Imuntzo: Nire ustez bi edo hiru elementu egotea ez da dena. Hemen bakoitza den bezalakoa da eta batzuk beste batzuk baino gehiago enroilatzen dira eta gehiago ahalegintzen dira besteen lanean parte hartzen. Hori Bilbon gertatu zen. Bilbon saiatu ginen bion aldetik gauzak ahalik eta txukunen egiten eta Gasteizen, berriz... Gu ahalegindu gara beraien lanean nahiko ondo moldatzen, tonuak hartzen... Baina ez dut uste beraiek hainbeste parte hartu dutenik.

Maixa: Jendea eserita egotea gogorra egin al zaizue?

Beloki: Beste aukera bat da, guretzat gogorragoa. Gu ohituak gaude jendea dantzan ikusten, baina aukera berri hau guretzat erronka da. Nahiago dugu jendea aurrean dantzan ikustea, baina hau onartzen dugu.



Imuntzo: Aurrean jendea dantzan ikustea polita da, baina guretzako polita baino gehiago erosoa da. Badakigu, dantzan ari direlako, ez direla guri begira ari, guk zertan kale egin, edo nola egiten dugun... Orduan guretzako askoz erosoa da.

Maixa: Jendea dantzan ikusten baduzu ere gehiago motibatzen zaitu horrek...

Imuntzo: Ni, jendea begira egoteak ere motibatzen nau. Askok estimatzen dut. Jendea eserita begira egoteak errespetu handia ematen dizu eta hor ikusle goari buru egin behar diozu, 'cara a cara'.

kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

k

Egunotan, **MARTXO**Aren 3an hain zuzen ere, Maixa ta Ixiar taldeak trikitixa doinuak jarriko dizkie Xabier Amuriza, Ion Sarasua eta Igor Elortzari, Triki-bertsok Gasteizen egingo duen bigarren agerraldian

Bi aldeetatik zerbait jarri

- Maixa Lizarribar, trikitilaria -


Triki-bertsok

Irakurri duzuen kronika kaxkar honen inguruko kritika bat aipatu nahiko nuke. Agian norbaitek "gaizki hartuko" du, batik bat bertsolari edota bertsozaleek, baina, nire ustetan honelako saio bat aurrera ateratzeko beharrezko diren gauza batzuk ez dira kontutan hartzen.

Kritika hau janzteko Ixiarri eta bioi jazotako gertakari bat erabiliko dut. Ez dakit noraino orokortu dezakegun, hainbatean gertatu ohi den ala ez, baina izan badela bai, guri, Ixiarri eta bioi, hala egokitu izan baitzaigu maiz.

Ixiarrekin daramatzadan urte hauetan guztietan, bertsolarien inguruan askotan ibili izan gara. Egun guztirako herri batera joaten ginenean, egun pasa horretan bertsolariak genituen kide eta pasarte ugari igaro ditugu beraiekin; bai onak, asko gainera, eta baita txarrak ere. Erromeri batera joanda ere, aurretik bertso saioak izan ditugu eta gu izaten ginen beraiei mikroak eta tresneri guztia jarri behar genizkienak. Gaizki entzuten bazuten, hori bai, aurrepegi txarrak guri. Baina saioa ona izanez gero, bukaeran egindako irrifar batekin dena konpontzen zen. Ez beti, baina bai maiz askotan!

Egun guztirako edo erromeri batera joanez gero, beraiek azken momentuan agertu ohi dira. Bertso saioa eguerdiko ordu batean baldin bada, 12 t'erdia aldera agertu, 'marianito' pare bat hartu



eta bertso batzuk botatzera... Saioa gauez bada, berriz, afaltzera hurbiltzen dira eta, purua ezpainetan dutela, sekulako patxadarekin agertzen dira saioa egitera; askotan ordua errespetatu gabe ere!

Saioa bukatu eta etxera edo parrandara! Kuestioa da libre izaten direla beren eginbeharretatik. Gu, aldiz, saioa jasotzen duen lekura ia bi ordu lehenago iritsi beharra daukagu, beraientzako gauzak prestatzeko. Beraien saioa pasa, gure erromeria egin, tresna guztiak bildu, eta goizeko ordu txikitian etxera.

Askotan aipatu digute beraiek ere hori: "Guk bukatu dugu eta bagoaz. Auskalo noiz iritsiko zareten zuek etxera. Oraindik lan asko daukazue".

Hori hala da eta, esan daiteke, horrela-ko saioetan bertsolariak oso ondo bizi direla.

Triki-bertsok ekitaldi hau aurrera ateratzeko, aldiz, lan pixka bat egin beharra dago. Bi aldeek jarri behar dute beren aldetik zerbait. Trikitilariok doinuak prestatzen ditugu saio hauetarako, beraiei egokien etortzen zaien tonua aurkituz eta erritmo aldetik ahalik eta errezena izango zaiena aukeratzuz. Entsaioerik ez da egingen, baina komeni izaten da, saioan elkarrekin zerbait egin nahi izanez gero, zerbait probatzea.

Bertsolariari abestea gustatuko litzaizkiokeen doinuak prestatzen saiatzen gara (aurretik beraiekin hitz eginez, noski). Baina, ekitaldia hasi aurretik bildu eta, guk egin dugun lana egin eta gero doinu horiek abestu nahi ez dituztela esateak, benetan, bat lur jota uzten du: beraiek doinu batzuk hautatu eta gero abestu nahi ez dituztela!

Beste kontu bat, berriz, orduarena da. Beraientzako oso erosoa izaten da saioa hasi baino ordu erdi bat lehenago iristea, baina honelako ekitaldia burutzeko, aurretik entsaioerik egin ezean, komeni da gutxienez ordu pare bat lehenago biltzea. Eta bertsolariak horren kexu izaten dira. Ez nago beraien, bertsolarien kontra, bertsoak oso gustatzen baitzaizkit. Baina oso "komodoak" dira, beti 'a mesa puestu' etortzera ohituak daudelako. Ea gauza zertxobait aldatzen den eta ohitura horiek eguneratzen diren. Denon aldetik aletxo bat jarritz gero, gauzak hobeto aterako lirakeke.



Arte Ederrei

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak

oleoak

akwarela

pintzelak

ikatzkiloak

kaballoteak

lientzoak

olioak

etabar

%10a
gutxiago

Arriaga
euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Urtiasolo 2.2. Pabillioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

IPARRA
taberna
Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ

KINOK artearen munduan jorratu duen ibilbide artistikoa oparoagoa izan zitekeen, une emankorrenean heriotza etorri izan ez balitzai

Kinoren joan-etorriak

- Fernando G. de Cortazar, Kinoren laguna -



Baten batek Kino Tinbukturantz abiatu zela esan zidan. Egia esan, ez zitzaidan batere arraro iruditu; Kino beti dabil hemendik hara gelditu ezinik.

Urtarrilaren 28an

Kino Gamarraren omeneko erakusketa inauguratu zen Luis de Ajuria aretoan. Xabier S. de Gorbea eta Jabi Tudela mintzatu ziren omenaldiari hasiera emateko: Kinoren nortasuna azaldu zuten, ikuspegi artistikotik gehien bat. Erakusketan, Kinok artearen munduan jorratu duen ibilbide artistikoa oparoa eta ezezaguna ikusi genuen. Egia esan, oparoagoa izan zitekeen, une emankorrenean heriotza etorri izan ez balitzai.

Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan hasi zuen bere ibilbidea. Han eskuratu zuen materialekiko iaotasun eta ofizioa. Izan ere huraxe baita bere hasierako lanen ezaugarri nagusia: materiala menperatu. Menperatze horrek forma bera baldintzatzen zuen.

Hala ere, hasiera batean lanerako erraztasuna zena oztopo bilakatu zitzaion garaiko estetika aurrez-aurre topatu zuten. Kinori erraza zitzaion finezia horri jarraituz betiko formak errepikatzea, baina bere zintzotasunak aurrerapausuak egitera behartu zuen. Artista krisian murgildu zen, krisi analitiko batean. Bertatik sortu ziren burdinezko konposizioak: bertan behera utzi zituen gai tradizionalak - egurra eta harria - eta beren lanaren ordura arteko logika -kenketaren logika-. Duda-muden artean logika berriaz sortu ziren bere eskulturak: orain eraiki egin behar ziren, zatikiak gehitu, eta egitura edo barruko funtzionamendua izan ziren objetuan logika berria.

Aldaketak astiro burutu behar dira. Ideia berriak pausatzen utzi behar dira.

Kinok, ordea, brankako maskaroia egin behar zuela-eta, horren aitzakian, buelta eman zion munduari belauntzi batean. Hor sortu zen Kino ibiltaria. Aurrerantzean bidaia eta sorkuntza tartekatatu zituen. Berak esaten zuen bezala, buelta munduari egin daitekeen eskulturarik handiena zen eta handik aurrera bidaia eta eskulturak bat egingo zuten; eskultura bakoitza zen bidaia baten abiapuntua eta



bidaia bakoitzak aurkitu zuen islada eskultura batean.

Eskultura esanguratsu, sakon eta libreenak parada horietan sortu ziren. "Ateak" gune biren arteko trantsizioa da: kanpotik

misterioaren bidea, barrutik askatasunarena. "Ikaro", askatasunaren mugei buruzko hausnarketa da; ikuslea instalazioaren parte bihurtzen da, Dedaloren papera hartzen du (Dedalo izan baitzen eskulturaren egilea). "Sisifo" sailaren objetuek fintasun eta dotorezia handia dute, material ezberdinen akorde ezin ederragoak konposatzen dute. "Nomadak" eskultorearen iraganarekiko eta bere memoriarekiko nahitaezko adiskide-tzea da, egurra aurkitzen du berriro ere eta kolorea agertzen da. Azken obra honetan bere egiten ditu B. Chatwinek artistaren egoeraz eta lekuaz egin zituen hausnarketak.

Erakusketaren helburua ibilbide bat egitea da, Kinoren bizitzan eta sorketan barrena. Begi bistan uzten du bere lanaren garrantzia. Hurrengo pausua bere obraren katalogazio zehatza egitea izan beharko litzateke.

Kinoren lanak geratu zaizkigu, eta baita gizon zintzo baten oroitzapena ere.

euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



izena eman  n!

Zurekin 600.000
irakasle izango gara
2.300.000 ikasle
euskalduntzeko

Jose

Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00

adi
Datorrenaki!

- irolak - gasteiztar bat, serbiar bat eta kanadar bat

GASTEIZ hockey taldean

Izotz gaineko hockeya kirol ikusgarria, gogorra, azkarra... dugu. Pistan hockey jokalariairen itxura ere ikustekoa izaten da: Kaskoa, belaunetakoak..., guztira, hamar bat kilo eramaten ditu soinean kirolariak. Alabaina, hockeya ez da kirol bortitza, behin eta berriz filmeek kontrakoa erakusten badigute ere.

Pelikuletako hockey jokalariai astakiloak eta harroputzak izaten dira, halere, Gasteizen ez dugu horrelakorik topatu, eta Andoni Garinalasek, Brian Medeiros-ek eta Aleksander Kosicek Gasteiz Hockey Taldearen berri eman digute.



GASTEIZTAR askok eta askok ahazturik dugu izotz pista dugula hirian. Arana aldean, etheen artean izkutaturik, Logroño kalean hain zuzen. Hantxe aritzen dira gure protagonistak, Gasteiz Hockey Taldeko jokalariai, alegia. Aurten lan polita egiten ari da taldea, eta horren ondorioz, Lehen Mailako txapelketa lortzeko lehian murgilduta izan ditugu. Atzean geratu dira Gasteizko hockeyaren amesgaiztoak, izotz pista gasteiztarra desagertzeaz egon zenean, beste hiri batzuetan, Bilbon kasu, gertatu zen moduan.

Etxeko jokalaria den Andonik, gaztea izan arren, gogoa du oraindik: "Orain zazpi urte gertatu zen hura. Krisialdiak jota, hockeyak, Sevilla eta Kanariar Irletan bezala, porrot egin zuen, eta hemen ere

desagertzeko zorian egon zen". Lehen aipatu bezala, egun, aldiz, bestelakoa da egoera. Orain, taldean, etxeko jokalariai eta atzerriarrek nahasten dira, harrobia fruituak ematen hasia da, eta hori gutxi balitz, Logroño kaleko kirol instalaziora gero eta zaletu gehiago hurbildu

geu gasteiz

"Orain zazpi urte desagertzeaz egon zen izotz pista"

geu gasteiz

ohi da, 1000 lagun inguru, guztira. "Asko maite gaituzte, eta gure alde daude norgehiagoka guztietan", gaineratzen du jokalariai gazteak.

Erabat gasteiztar tuak

Kirol bizia denez, 20 bat lagunek osatzen dute hockey taldea. Horrela, entrenatzailerak etengabe aldatzen ditu pistako bost jokalariai eta atezaina.

Ilido beretik, Gasteizko Hockey Taldearen entrenatzailea italiarra da aurten, eta ez da kanpotik etorritako bakarra, etxeko mutilekin batera, bi kanadar eta bi serbiar baitaude. Gu Brian Medeiros kanadarrarekin eta Aleksander Kosic serbiararekin egon gara hizketan. Brian Medeiros izotz gaineko hockeya kirol nagusia den hirian jaio zen, Toronton, hain juxtu. Italian urtebete eman ostean, Gasteizera heldu zen orain bi hilabete. Aleksander Kosic, berriz, iaztik dago gurean. Bere hitzetan, gerratearen ondorioz alde egin zuen Serbiatik, "Belgradoko Izar Gorrian jokatzen nuen. Hockeya nire ogibidea da, nik hau egiten dakit, besterik ez. Beraz, etxetik urrun nago, baina atsegin dut Gasteiz, Bericen (Baskoniako jokalaria) lagunmina naiz eta lasai nago zuekin".

Hockey jokalariai ez dugu futbolariaren moduan irabazten, baina bizi ahal izateko ematen dizu. Gasteizek Liga

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

*artisauek lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten dituzte*

Herreria 38, behea tfnoa.: 25 25 03

01013 Gasteiz



San Antonio, 39

irabaztea nuen ametsa, zaila genuen arren". Andonik hartzen du hitza, "nik baino lagun gehiago ditu, erabat gasteizartuak ditugu". Halere, noizean behin etxera itzuli behar izten du, bertako selekzioa baita.

Beste talde batzuekin alderatuz, kanpoko jokari gutxi ditu Gasteizek. Jacan, esate baterako, 12 bat atzerriar daude. 20 milioiko aurrekontuak mugatzen du taldea, noski. Horren ondorioz, gasteiztarrek gazteekin egin behar dute lan, eta hori positiboa da beti, "gogo handiz jokatzen dugu. Aleksander, Brian... onak eta azkarrak dira, eta eurei esker izugarri ikasten ari gara. Pistan txikitatib ibili dira, oso irakasle onak izan dituzte beren herrietan, eta orain guri irakasten digute. Lehen guk ezer gutxi genekien", argitu digu Andonik.

Beraz, talde ezberdinen arteko aldeak nabarmenak dira. Aurrekontuez gain, Gasteizko izotz pista ez da beste batzuk bezain ona, itxurosoa dugun arren. Zaletuak biltzen diren harmailak pistako alde batean baino ez daude, eta orduan, hemen,



beste lekuetan ez bezalaxe, jendeak ez du kantxa osoa inguratzen.

Adibide argia Jaca dugu, bertan 2000 lagun baino gehiago biltzen baitira. Aleksanderri ez zaio hori axola, "zaletuak alde bakar batean egoteak harritzen zaitu lehendabizikoz ikusten duzenean, baina ez da inportanteena. Jacakoa ere txikia da, Canada-k pistekin alderatzen badugu. Gainera, han gol bat ikusteko jendeak ez ditu bi ordu emango... Futbolaz ari

naiz, noski, eta futbolearen aspertu beharrean hockey ikustera joaten dira. Pistak izugarriak dira, 20.000 lagunekoa eta...".

Zaletu onak

geu gasteiz

"zaletuak leku guztietara laguntzen gaituzte: autobus bete"

geu gasteiz

Hemen horrelakorik gertatzen ez denez, jokari gehienek, kanpotarrak izan ezik, lana eta kirola tartekatuz behar dituzte. Horieta-koa dugu Andoni, "nik etxegintzan egiten dut lan, gogorra da, lanetik irtenda, hona

etorri, milaka ariketa fisiko egin... Atseginez egiten dut, hala ere. Egia esan, taldean oso giro polita dugu, eta pozik bazaude, ondo entrenatzen duzu. Astelehenetik larunbatera, gainera, hemen jai egun bakarra igandea baita". Brian kanadarrak ez ditu zaletuak ahaztu nahi, "Gasteizko zaletuak harri-garriak dira, leku guztietara lagunez beteriko autobus batek laguntzen gaitu". Dena den, zaletuak ezezik janariak ere harritu dute kanadarra, "A ze onak diren legatza eta txitxarroa!" dio irrifartsu.

Hockeya nire

ogibidea da,

nik hau

egiten dakit,

bestetik ez.

Beraz,

etxetik urrun

nago, baina

atsegin dut

Gasteiz, dio

Aleksander

Kosicek

Andonik azaldu digunez, "atzerriarreirei esker, gora egin du hemengo hockeyak. Zenbat eta jokari hobeak ekarri, orduan eta gehiago ikasten dugu gazteok. Nik, adibidez, aurtan pasa diren zazpi urteotan baino gehiago ikasi dut. Horri esker ere, txapelketa lortzeko lehian sartu gara lehendabizikoz". Aleksanderrek zalantzarik ez du: "Horretarako gaude eta".

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako... behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKOA

jo eta ke

TXAPELARRI

TABERNA

KUTXI kalean

Sei urte igaro dira Epi, Anti, Fernandito eta Pela Obligaciones del Estado taldea sortzeko elkartu zirenetik, lau urte *Ocho Canciones como Ocho Uñas Sucias* izeneko estreinako maketa kaleratu zutenetik, urte bete taldearen izena moztuta geratu zenetik, Obligaciones bilakatu zelarrik, eta sei hilabete Obligaciones KD-a argitaratu zutenetik. Punk-rock, hauxe da sei urte hauek laburtu ahal izateko beharrezkoa dugun hitza.

OBLIGACIONES: emadazu kaleko punk-rock-a

Obligaciones taldeko lau lagunek ezin zuten denbora gehiago itxaron. Bederatzi abesti zituzten kaleratzeko irrikitan. Argitaletxeek ez dute haien alde aposturik egin nahi. Zergatik? Batek daki! Guk, KD hau osatzen duten bederatzi kantak entzun ondoren, ez diogu funtsezko azalpenik topatu disketeek ez erantzuteari. Ea Obligaciones-ekoek eurek laguntzen diguten.

Orain sei urte taldea sortu zenuten arren Obligaciones-en jatorrizko formazioa ez da aldatu.

Bai, halaxe da. Askotan jendeak emaitza onak eta azkarak lortzen ez baditu taldea utzi egiten du. Hala ere, guri, oraindik, ez zaigu horrelakorik gertatu, beharbada gure proiektuari ez geniolako helbururik ipini, ezta zerbait lortzeko eperik ere. Hasieratik argi eta garbi zegoen taldearen asmoa; ondo pasatzea elkarrekin jotzen eta gustura egotea, hain zuzen. Gaur



KONTAKTUA
(945) 25 24 40 Inaki.

geu gasteiz
oraingo
kontzertuetan
istur gutxiago
egoten da
geu gasteiz

egun, KD-a kaleratu dugunetik, gure lan egiteko modua aldatu da; taldeak garatu beharreko soinu aurreratu dugulakoan gaude, badakigu nolakoa izan behar duen gure soinu horrek, ideiak argiago azaltzen zaizkigu... Bestalde, orain arte ezagutzen ez genituen musika arlo

ezberdinetan gaituzue sarturik, gero eta sakonago lantzen ditugu taldearen kontabilitatea, zuzenekoak eta bul-tzapena; gure musika plazaratu ahal izateko ezinbestekoa baita gauza hauek guztiak kontuan hartzea.

Obligaciones izeneko diska hau zenek ekoizturikoa da. Ez al duzue disketeetara jotzeko aukerarik?

Bai. Grabazioa gauzatu ahala Euskal Herriko diskete alternatibo guztietara eta Madrilera ere bidali genuen, baina ez zigun inork erantzun. A bai!, egia esan, Madrilgo batek eskutitz bat idatzi zigun geure musikak euren katalogoan lekuri ez zeukala esanez. Jasotako harrera ikusita, guk geuk plazaratzea erabaki genuen. Ezin genituen sortutako azkenengo abestiak hiltzen utzi, eta horrela, abestiak onak zirelakoan, gu arduratu ginen garabazioa zabaltzeaz. Beste batek zabalduko balu, errazago geneukake lana,



HEGOALDE
euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!



**BEIRATE
ESTUDIOA**

MIKEL
DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

baina, tira!, guk egin behar-ko dugu...

Iraupen laburrekoak dira zuen abestiak. Hirugarren minututik aurrera abestiak aspergarri bilakatzen dira, ala?

Gure ustez bost aldiz errepikatzen den esaldiak asper ditzake entzuleak. Abestietan kondatzen ditugunak ez dira istorio osoak izaten, pasadizuak baizik, eta, jakina!, pasarte bat kontatzeko ez duzu denbora luze eman behar, behin eta berriz gauza bera esatea ala jotzea aspergarria da eta.

**Eta gaurko diska gehienak orubete inguruak badira ere, zuek eskeintzen diguzue-
nak hogeit hamar baino ez ditu.**

Hasieran, diska grabatzen hasi ginenean, ordu erdikoa izango zela pentsatu genuen, baina bidetik hiru kanta eta sarrera bat utzi genituen, estudioan gertatuko ez baitzen bat etorri aurretik pentsatutakoarekin. Ez ginen abesti horiek jotzeko sasoian, ez genuen lortzen garatu nahi genuen soinua. Konfidantza gehiegiz sartu ginen estudioa, oso erlajatu-ta, agian. Aurreneko maketa, zortzi abesti zituena, hiru egunetan gauzatu genuen eta. Baina oraingo honetan, kanta berrien konponketak gaitzagoak suertatu zitzaizkigun, maketaren abestiak baino Oabardura gehiagoko-ak zirelako...

Gure soinuak "garaje"-tik gertu daude

geu gasteiz

Punk jarrera eta rock musika. Hauek dira "Obligaciones"-en ezaugarriak nabarmentzenak?

Zuzenekoetan bete-betean heltzen diogu punk jarrerari, eta musikari dagokionez, punk dela esan daitekeen arren, ez dugu zerikusi handirik Euskal Herrian egiten ari den punk-arekin, gurea rockeroagoa dela uste dugu eta. Abestiak azkarrak dira, eta gainera gu azkartzen gaituzte. Gustora jotzen ari garenean geure onetik ateratzen gara, bai, horrelaxe gertatzen da...

Bestetik, punk-rock azkarrean aritzen bagara ere, ez gatoz bat Hard Core-aren erritmoekin. Gure soinua garajetik hurbil dago, makarra dela esan ohi dute batzuek. Ramones-en eraginak islada handia dauka guregan.

Hablan de mi borobila liteke, edozein taldek berea izatea gus-tukoa zukeena.

Hablan de mi KD honen abestirik zaharrena da, sinpleena. Oldarkorra, askotan zuzenekoak zabaltze-

ko erabiltzen dugu, taldea aurkezteko baliogarria delako. Dena den, gure ustez *You are waiting* izeneko kanta zuzenagoa da, irratietan agertzeko egokiena. *Hablan de mi* taldearen *bandera* izan zen garai batean, baina gaur egun ez dugu gogokoena, berrienak edota egun horretan lokalean edertoen jo duzuna baizik. Halaxe gertatzen da, bai.

Bestetik, No estoy bien mote-lagoa da, giroa sortzen duen horietarikoa, baina agian, zuzenekoetan taldearen azkartasuna apurtzen duena...

Ez pentsa! Gu ez gara taldearen tankera bat sortzen saiatzen ari, baizik eta soinu bat. Gure abesti zerrendan hau bezalako beste hiru kanta ditugu. Dena den, abesti honen emaitzan estudioak eragin handia izan du. Diskoan entzun daitekeena ez

dator bat lokalean edo zuzenekoetan eskeintzen dugunarekin, grabazioa leunagoa da eta. Zuzenean askoz indartsuagoa da. Estudioak azkartasuna lapurtu zion, bedur handiaz jo genduelako behar-bada.

Aukera izango bazenute, grabatuko al zenituzkete berriz ere KD honen abestiak?

Errepikatzea ez dugu gogoko, baina baliabideak hobeak balira..., beste modu batez grabatzeko aukera emango baligute... Diru gehiagorekin emaitza ezberdina litzateke, duda barik. Egia esan, taldeak aurrera egiteko baldin bada, edozein gauzatarako prest gaituzue.

Kalea da zuen testuetako protagonista nagusia.


Bai, kondatzen ditugun pasadizuak kalean gertatzen dira.



Ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

MUDDY WATERS Hoochie Coochie Man

Chess from Charlie Records, 1993.

Badirudi azkenengo urteetan diska industria errentagarritzat jotzen ari dela betiko bluesa... Eta guk atsegin dugu musika moeta honek merkatuan lekua izatea, hala ere, bluesa (edo, hobeto esanda, blues abesti batzuk) zabalitzen ari den era ez dugu batere gogoko.

Azken bolada honetan arrunta gertatzen da telebistako zenbait iragarki bluesez hornitzea, gaurko erara jotako blues klasi-koaz hain zuzen, estreinako bertsioa eta benetazko sortzeailera izena galtzen delarik. Baina industriak ez du hain jokaera txarra ezlarri apurtutako gizon eta emakume beltzekin, ez. Noizean behin blueslariei uzten die estudio modernoetan lan bat grabatzen salmenta izugarriko lan bilakatuko delakoan. Hauxe da, hain zuzen, John Lee Hookeri duela zortzi urte gertatu zitzaiona. Dena den, Hookerek lortutako salmenta kopurua industriaren buruek espero zuten bezain arrakastatsua izan ez zen arren, baimena eman zioten musikari ezagunekin beste diska bat gauzatzeko. Bigarren saio horretan badirudi salmenta askoz hobea izan zela, Hooker jaunak geroago garai honetako

hirugarren lana grabatzeko aukera izan baitzuen.

Egun B.B. Kingi heldu zaio txanda, baina argita-

letxeok, Hookeren lezioa ikasita, zuzen jo dute bigarren urratsera, Kingek musikari zuri ezagunekin harrera bikaineko **Duets** izeneko diska kaleratu duelarik.

Eta guk, bluesa beti gogoan eta gogoko izan dugunok, eta industriaren aginduei jaramonik egiten ez diegunok, izen handi bat eta hogeit kantak aurkeztu nahi dizuegu; Muddy Waters blueslaria eta **Hoochie Coochie Man** bilduman entzun ditzakegun abestiak, hain zuzen.

Eta nor dugu Muddy? Seguru asko, Willye Dixonen baimenarekin, historiak eman digun blueslaririk handiena. Zalantzarik bazenu, irakurri lerro hauek, eta gero Watersen musika entzun...

McKinley Morganfield izan zuen benetazko izena eta Muddy Waters, ezizena. Hona hemen **Hoochie Coochie Man** abestia (Dixonek sortutako bluesik bluesena) munduratu zigun gizona. Ez duzula gogoratzen? Entzun ondoren esango duzu: "A! Hori al da Bluesik bluesena?", edota "A! Claptonen **From the Cradle** diskan agertutakoa!".

Watersen ahotsak, zein bere gitarraren soinuak musikari



belaunaldi oso batean eragin handia izan zuten. Blues klasi-koa elektriko bihurtzen ari zen, bere musika Britania Handiko gazte askoren belarrietara iritsi zenean; iritsi, jabetu eta moldatu. Halaxe, bada, soinu beltzak zuri bilakatu ziren mundu osora zabaldu zirelarik...

Eta nortzuk izan ziren Waters aita berritatz hartu zuten musikari gazte horiek? Entzun al ditzugu hurrengo izenak? The Rolling Stones (Watersen abesti batek izena eman zien taldea)? Led Zeppelin?, The Animals? The Cream? Jimmy Hendrix? Entzuna? Bai? Orduan, ezagutu behar ditzugu talde hauek grabatutako Muddyren kanten bertsioak, McKinley ezezagunak sinatzen dituen abesti horiek, hain zuzen.

Dasta ditzagun, bada, jatorrizko **Mannish Boy**, **Rollin and Tumblin**, **I Just Want To Make Love To You**, edota **You Shook Me** abestiak, eta eman diezagun maixuari maixuarena dena!!.

Eskerrik asko McKinley Jauna.

TXABI ARNAL-GIL

Hala ere, gure hitzetan irudimen haundia dago, komikiek islada nabarmena dute. Punk-aren topikoak ez jotzen saiatzen ari gara, baina umore txarra ez dugu falta. Guk ez dugu konpromezuzko hitzik idazten, ez dugu inor konbentzitu behar. Bakoitzak bere ikuspegitik begiratzen dio bizitzari. Hitz gehienak Inakik idazten ditu, berari gertatutako edo berak asmatutako pasarteak izaten dira normalean.

Nonbait entzun dut zuzenekoak leundu dituzuela.

Leundu ez, aldatu, ordea, bai, aldatu dira. Oraingoak ez dira lehengoak bezain hondagarriak eta istilu gutxiago sortzen da. Hasieran beti zer edo zer txarra gertatzen zitzai- gun; bateria jausten zen edo gitarren kordak apurtzen zitzaizki- gun. Lehengo jarrerari eusten badiogu ere, sionua gorantz doa. Urteek eta esperientziak gauza asko irakatsi dizkigute. Denbora luzea daramagu elkarrekin jotzen, orain badakigu zer nahi dugun, eta horixe taldearen arlo guztietan nabarmena da. Ideia berri batetik berehala sortzen da abestia, horrela, oso naturalki, eta horrek esan nahi du taldea gero eta sendoagoa dela.

TXABI ARNAL-GIL

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

Uetzal
HegoAmerikako jantziak edonak
PINTORERIA kalea • S. Franciscoren kantoiairen ertzean Tfnoa: 25 03 52

Tu Invernadero
zure lore sortak
ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ



GYREA
jatetxea
Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Korteria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra !

35



adaka
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ



ITZIAR
URIARTE

Ligatzea, irakasgairik errazena

AUDEZKARI BAT irakurtzen, pelikula

bat ikusten edota kalean zaudelarik, noizbait, ziurrenik, adierazpen hau egin izan duzu: Hauxe da nire neska edo mutil ideala! Altuak, baxuak, ilehoridunak, alaiak, adimentsuak, dirudunak... era askotako mutil edo neska dago. Eta gure mostrongotxoaren artean, zer? Nolakoak izan behar dute beraien neska edo mutil idealek? Ze zaletasun izan behar dituzte? Edo zein bereiztasun ez lukete inoiz izan beharko?

Horretaz gain, beste kezka interesgarri bat argitu nahi izan dugu: Atsegin dugun neska edo mutila gure aurrean daukagunean... Zer egin behar ni hor nagoela ohartzeko? Nola jokatu beharko genuke? Ez pentsa gure mostrongotxoek ideiak xakkarrik dutenik. Bestela, adi Lopez de Guereñu ikastetxeko biztanleen amodio kontuen trikimailuei...

Nire Cindy Crawford oso polita iruditzen zait. Bere ilea marroia eta oso luzea da, begi marroi, borobil eta oso disdimentsuak ditu. Bere hankak oso luzeak dira eta itxura izugarria dauka. Ez dut uste tankera txarra duenik, baizik eta oso umore ona. Ez dut uste nik berarekin ligatzea lortuko nukeenik, baina beno... horrelakoa da bizitza!!!

SERCEI. II URTE

Joene oso atsegina da eta berarekin ligatzeko eskutiz bat idatziko nioke, oso polita dela esanez. Afari batera gonbidatuko nuke eta amaitzerakoan musu bat emango nioke. Arriskuan balego arriskutik aterako nuke eta zera esango nioke: Nire neska maitea!... Eta berak niri musu bat eman-go lidake.

Josu. 12 URTE

Nire neska ideala ez du ni baino haundiagoa izan behar. Trebea eta ausarta izan behar da. Jaia gustatu beharko zaio eta argia izan behar du. Leiala, saski baloia gogoko duena, baina Taugres Bakoniako zalea baino ez luke izan behar.

RUBEN. II URTE

Nire mutil gogokoena ni baino baxuagoa da. Ez argala, ezta lodia ere. Ile motza eta marroi kolorekoa, begiak bezalakoa. Ez berekoa, atsegina baizik, eta argitxo izan behar du. Futbola eta saskiba-

loia gustatu behar zaizkio, baina ez zorabiatzeko moduan. Berarekin ligatu ahal izateko,...festa batera gonbidatuko nuke edo etxeko lanak egiten lagunduko nioke.

NURIA. II URTE

Nire amateetako neskak bular haundiak izan behar ditu. Bere pentsakera, nirea bezalakoa. Oso argitsua, azterketa guztietan bikainak ateraz. Berak nirekin ona izan



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA



behar du eta ez du inoiz ilea moztu behar.

ALVARO. II URTE

Atsegina, erromantikoa, adimentsua eta ume asko izan nahi duena. Saskibaloia eta tenisa gustatu behar zaizkio. Hogei urte baino gehiago izan beharko du ezkontzeko. Berarekin ligatzeko afari batera gonbidatuko nuke eta gauza askoz hitz egingo genuke.

SERGIO. II URTE

Altua, errubioa eta asko dakien mutil batekin egon nahi nuke, baina normalean ez dut inor gustuko. Gela honetakoak itsusiak dira, ez zaizkit gustatzen ez beren aurpegiak, ezta barnetik ere. Ez dakit nola ligatuko nukeen berarekin, baina oso zaila

izango litzateke niretzat gustatzen zaidan mutil batekin topo egitea, ez baitut inor gogoko.

TANIA. II URTE

Begi ordinarik baditu, hobeto. Ileak berdin dit, iluna edo errubioa. Altua balitz, ederto. Maitagarria, umore onekoa, atsegina... eta berekoia ez izatea. Ospetsua izango balitz, hobeto. Matxista balitz ez nintzateke berarekin ezkonduko. Mutil horrekin ligatzeko rock musika oparituko nioke.

MONICA. II URTE

Niri atsegina zaidan neskak ilehori eta altua izan behar du. Kirolzale haundia eta jendearekin atsegina izan behar du. Arropa distiratsuak eramatea, beti alai egotea,...

garrantzitsua iruditzen zait. Eta nire adinekoa, edo urte pare bat gutxiago izan behar ditu. Mendira eta futbol zelaietara joatea gustatu behar zaio, eta gainera nirekin ez du inoiz haserretu behar.

JONATHAN. II URTE

Nire mutilak oso polita izan behar du. Beltzaran edo ilehoriduna, altuera bi metrokoa gutxi gorabehera, begi urdinak eta ile motza izan behar ditu. Saski baloian jokatu behar du, Taugres Baskonian adibidez. Oso garrantzitsua da berak lan bat izatea. Atsegina izan eta ondo jantzi behar du. Dirua ez du lelokerietan agortu behar, eta niri bitxiak oparitu egin behar dizkit.

IOSUNE. II URTE

haurrak

HAURRAK ZAINTZEN DITUGU kanGEUroak

GOIZEZ

Nekane	26 91 53
Eduardo	14 21 99
Leire	27 32 81
Lorena	27 10 13
Ainara	24 04 42
Ana	26 65 95
Eriete	29 96 50
Estitxu	27 65 07

Idoia	24 47 79
Lorena	27 10 13
Montse	26 78 12
Ainara	23 38 28
Txaro	28 08 85
Maidar	24 90 62
Arrate	25 64 01
Patricia	13 93 37

ASTEBURUAN

Olatz	25 61 20
Montse	26 78 12
Arrate	25 64 01
Patricia	13 93 37
Leire	23 12 23
Jose Angel	27 62 14
Saida	26 58 05
Idoia	24 47 79
Maidar	24 90 62
Belen	13 65 10
Monika	13 86 21
Itziar	13 86 21
Maria Jesus	13 54 35
Estitxu	25 99 60

ARRATSALDEZ

Oihana	25 30 35
Aintzane	27 09 64
Iratxe	24 51 81
Ainara	23 38 28
Lorena	27 10 13
Patrizia	27 78 19
Leire	23 12 23
Maidar	24 90 62
Estitxu	27 65 07

GAUEZ

Esther	27 84 57
--------	----------

ARABA EUSKARAZ '98

orain dugu garaia



ostiraletan 5:30-8:30
larunbatetan 11-13:30
5:30-8:30

POSTA PASABIDEA, 12

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



JANTZI ETA OPARIAK

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea

☎ 26 03 54



gidoia eta marrazkiak: Iñigo Sarasola

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



Z E
E L
R E
B B
I D
T V
Z N
Y A
K

CASA DE CULTURA

Diputación
Foral de Alava

Arabako
Foru Aldundia

KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE
ETXEA

HITZA KULTURA ETXEAN

MARTXOA

6 Ostirala

Arratsaldeko
5etan

Diaporama
"Ganges ibaian gora"
Felipe Uriarte

12 Osteguna

Arratsaldeko
8etan

Liburuaren aurkezpena
"Biziaren hizkuntzaz"
Jon Sarasua • Julen Arexolaleiba

26 Osteguna

Arratsaldeko
8etan

Helduentzako ipuinaldia
"Chuaotikan. Txokolatearen historia"
Koldo Amestoy

La Florida ibilbidea z/g
Tel. 945-181944

Diputación
Foral de Alava

Departamento de
Cultura y Euskera
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Arabako
Foru Aldundia

Kultura eta
Euskara Saila